

## POLIZI OPERAZIOAK

# Espainiako Poliziak 14 pertsona atxilotu ditu, eta 18 etxe arakatu

**OPERAZIO ZABALA.** Gipuzkoan bost lagun atxilotu dituzte, Nafarroan lau, Bizkaian hiru eta Araban bi, Baltasar Garzon epaileak agindutako operazioan

**AKUSAZIOA.** «ETAren zuzendaritza berriaren laguntzaile taldea» osatzea leporatu die atxilotuei Espainiako Barne ministro Angel Acebesek

**ERTZAINTZAREN OPERAZIOA.** Herenegun atxilotutako hiru adingabekoetarik bi preso sartu dituzte Madrilan, eta Balzak esan du inkomunikazioa «ezinbesteko tresna» dela /6-8

## EKIALDE HURBILEKO GATAZKA

### Israelgo Armadak 14 palestinar hil ditu Gazan eta Zisjordanian egin eskuhartzeetan

Israelgo ordezkariekin dituen elkarrizketak bertan behera uzteko eskatu dio Hamaseko bozeramaileak PANi

Gazan eta Zisjordanian atzo goizaldean eginiko esku-hartzeetan, Israelgo Armadako soldaduek 14 palestinar hil zituzten; 11 Gazan eta hiru Zisjordanian. Hildakoetarik hiru, Palestinako inteligentzia zerbitzuetako kideak ziren; bost Palestinako Aginte Nazionaleko poliziak; eta beste bat Hamaseko ustezko ekintzailea. Israelgo Armadaren oлдartzeari erantzunez, Hamasek lau kohete Kassam jaurti zituen Sderot hiriko enpresa batera, eta langile israeldar bat zauritu zen. Hamaseko bozeramaileak PANi eskatu dio Israelgo ordezkariekin izaten ari den elkarrizketak bertan behera uzteko. /20



BRENNAN LINSLEY / AP  
Israelgo Armadak Gazan hildako hiru palestinarren gorpuak, jendez inguraturik.

## ALDERDI POLITIKOEN LEGEA

Jimenez de Pargaren errefusatzeari atzera bota du Auzitegi Konstituzionalak /9

## ELURTEA

Uharte-Arakilgo gazte bat hil da elurjauzi batean /13

## LAB-EN BATZAR NAZIONALA

ELaren eta LABen arteko elkarlana arlo politikora ere eramateko apustua egin du Rafa Diezek /18

## EUSKAL PRESOK

Barandalla kartzelan sartu dute berriro, ebakuntza egin eta bi astera /8


## AUTODETERMINAZIOAREN BILGUNEA

Martxoaren 15ean erabakiko du AuBk hauteskundeetan inguruan zer egin /10

## MUSIKA

Urretxindorrek taldeak disko batean bildu ditu bere kanta guztiak /39

## GAURKO ELKARRIZKETA



**IMANOL LARZABAL**  
Kantaria

«Gaur egunean ezingo nintzateke hona itzuli; ez dut berriro disgustuekin hasteko gogorik» /38

**FRANCISCO ETXEBERRIA**

Gerra Zibileko desagertuei buruzko lan taldeko kidea

«Kontua ez da gorpuak aurkitzea bakarrik; haien historia berregitea garrantzitsua da» /14